





Kultur Aniztasuna **2024ko** Memoria



1. Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa

Nazioarteko egunak

Apirilaren 8a, Ijito Herriaren Nazioarteko
Eguna - Apirilaren 8a

Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna - Maiatzaren 21a

Haurren Egun Unibertsala - Azaroaren 20a

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna - Abenduaren 10a

Beste jarduera batzuk

Loturak zabaltu proiektua. Elkargune
(Moviltik) – Tailerrak ikastetxeetan

2. Prestakuntza

Migrazioa eta kultura-aniztasunaren kudeaketa

Etorkizuna hemen dago: aniztasunean
bizikidetzak dakartzan erronkak eta
aukerak - EHUKo Udako Ikastaroa

Prestakuntza ikastetxeetan

3. ARGITALPENAK

Barometroa

4. Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea

Ongi Etorri Eskola - Kulturarteko Bizikidetza
Programa Eskola Komunitatean

Emakumeen Kulturarteko Gunea

Kultura Aniztasuneko Eragileen Sarea

Harrera integral komunitarioa Martutenen

5. Sareetan parte hartzea

Elkarbizi sarea

“ZAS” zurrumurruen aurkako sarea

Kultura arteko Hirien Espainiako Sarea (RECI)

ICC (Intercultural Cities) Europako
Kontseiluko Kulturarteko Hirien Sarea

NET Idea proiektua

6. Elkarteentzako dirulaguntzak

Konkurrenteak

Zuzenekoak

Aparteko dirulaguntza

Sos Arrazakeria

Ukraina Euskadi

Dirulaguntza izenduna

Camelamos Adiquerar

Donostiako Udalak kultur arteko hiri-eredu baten aldeko apustua egiten du. Eredu horrek, berdintasunean pertsona bakoitzari datxezkion giza eskubideen errespetutik abiatuta, aniztasunarekiko errespetua sustatzen du, haren balio positiboa onartzen du eta elkarreragin positiboa sustatzen du, gizarte garapena eta kohesioa erraztuko dituen bizikidetza bermatzeko.

Aniztasuna errealitatea da, eta funtsezkoa da hiriko eta auzoetako bizitza ulertzeko. Donostiako Udala jabetzen da hirian izaten diren aldaketa soziodemografikoez. Badaki, gainera, aldaketok kudeatzeko orduan, bizikidetza eta gizarte-kohesioa indartuta atera ateratzeko ahalegina egin behar dela.

Hori dela-eta, Kultura Aniztasunaren Negoziatuaren helburua da hirian kultura-aniztasunari erantzuteko erantzun publikoak antolatzea, eta herritar guztien aukera-berdintasuna eta eskubide sozial eta politikoak bermatu ahal izatea, haien jatorria, nazionalitatea edo talde etnikoa edozein izanik ere.

<https://www.donostia.eus/kulturaniztauna>

1

1

**Sentsibilizazioa eta
kontzientziazioa**

1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa



Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna

Apirilaren 8a

1971eko apirilaren 8an izan zen, Londresen, Erromanien/Ijitoen Munduko Lehen Biltzarra. Biltzar garrantzitsu horretatik bandera (berdea eta urdina, eta erdian orga-gurpil gorri bat) eta Gelem Gelem ereserkia sortu ziren, nazismoaren biktima izan ziren ijitoen omenez egina.

Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna zela-eta, Eneko Goia alkateak, udal korporazioarekin batera, harrera egin zion ijito-herriari Udalbatza Aretoan. Ekitaldian Agifugi, Camelamos Adiquerar eta Fundación Secretariado Gitano elkarteetako

ordezkariek parte hartu zuten. Ijitoen bandera udaletxeko balkoian zintzilik egon zen.

Adierazpen bat irakurri zen eta bideo bat proiektatu zen, ijito-herriaren “Gelem Gelem” ereserkiarekin batera. Ondoren, Ibaiaren Zeremonia egin zuten Nautikoan, arrosa-petaloak jaurti eta kandelak piztu zituzten arbasoen oroimenez.

Dbusek bat egin zuen Ijito herriaren egunarekin, hiriko autobus guztietan ijitoen bandera erakutsiz.

1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa



Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna maiatzaren 21a

Ahaztu nire azentua” lelopean, Kultura Aniztasunaren Munduko Egunaren ospakizunarekin bat egin zuen Donostiak. Mestiza elkartearekin lankidetzan, postalak inprimatu eta kultur etxeetan, kiroldegietan eta abarretan utzi ziren, eta eguna sare sozialen bidez ere zabaldu zen.

Kulturen arteko elkarrizketaren, aniztasunaren eta inklusioaren garrantziaz kontzientziazteko, Nerea Kortabitarte kazetari donostiarrak idatzitako “Baloreak” liburuaren aurkezpena egin zen Aieteko Bakearen Etxean. Hamabi

emakume ilustratzailek parte hartzen dute liburu horretan, eta immigrazioarekin, kultura-aniztasunarekin eta gizarte-eraldaketarekin lotutako gaiak lantzen dira bertan, hamabi balio unibertsalen bidez.

Hainbat jarduera egin ziren, hala nola poemen irakurketa bat, haurren parte-hartzearekin, familientzako tailerrak eta txokolatada bat, kultura-aniztasuna denok elkarrekin ospatzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=XNYWChqixpM>

1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa



Haurren Egun Unibertsala

azaroaren 20a

Mestiza Elkarte Artistiko-Soziokulturalak, Kultura Aniztasuneko Departamentuaren bultzadarekin eta Donostia Kulturaren lankidetzarekin, festa bat antolatu zuen 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat.

40 haur inguruk parte hartu zuten Egiako Kultur Etxean egindako haur-festan. Bertan, Bertika Pinok kontzertu bat eman zuen munduko abesti, poema eta errimekin, hizkuntza desberdinetan. Era berean, haurrek liburu, posterren eta jostailuen tonbola batean parte hartu zuten, eta parte-hartzaileei Kieveko Argiaren

liburu bana eman zitzaion, orri-markatzaile eta guzti, bai eta eskulanak egiteko materiala ere.

Haurren Egun Unibertsalaren inguruan antolatutako jardueren programa orokorrean txertatzen da jardura hori, Donostiako Udaleko Kultura Aniztasun, Giza Eskubide eta Gazteria atalek antolatuta, Donostia Kulturarekin batera.

<https://labur.eus/LxaWy>

1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa

Abendua Diciembre
09
HERNANI
Kulturarteko Plaza Feminista 19:00

10
ORDIZIA
Ikasleentzako saioak
DONOSTIA
San Telmo Museoa 19:00

11
TOLOSA
Andragora emakumeen etxea 18:00

12
EIBAR
Ikasleentzako saioak
MUTRIKU
Zabiel hitzaldi aretoa 18:30-20:00

HIJA DE INMIGRANTES

Safia El Aaddam

Liburuaren aurkezpena
Presentación del libro

ELKAR BIZI **GIPUZKOA** **DONOSTIA SAN SEBASTIÁN** **TOLOSA** **Tolosaldea** **Hernaniko Udala** **ordizia** **EIBAR** **Mutrikuko Udala**

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna abenduaren 10a

Giza Eskubideen Eguna ospatzeko, abenduaren 10ean, Safia El Aaddam emakume idazleak bere liburua aurkeztu zuen (“Hija de Inmigrantes”), San Telmo Museoa. 71 pertsona bertaratu ziren.

Safia El Aaddam, sare sozialetan @ hijadeinmigrantes izenaz ezaguna, Espainian gehien ezagutzen den arrazakeriaren aurkako dibulgatzaile digitaletako bat da.

bidez. Sarearen baterako lanaren ondorioz, Gipuzkoako hainbat udalerritan aurkezpen-bira bat antolatu zen Safia el Addamekin.

<https://labur.eus/5jCwu>

Aurkezpen hori Donostiako Udaleko Kultura Aniztasunaren Negoziatuak eta Gipuzkoako Aldundiko Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritzak antolatu zuten, Elkarbizi sarearen

1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa





Loturak Zabaldu Elkargune – Moviltik

Aniztasun Atalak bultzatu zuen “Loturak zabaldu. Elkargune” proiektua. Sentsibilizazio-programa bat da, Moviltik-ek diseinatu eta egina. Errealitate birtualeko lan baten bidez, gazteak gure lurraldeen aniztasunaz, migrazio-prozesuez eta migratzaileen harreraz sentsibilizatzen ditu.

Ikasleak, errealitate birtualaren bidez, beren migrazio-prozesua azaltzen duten hiru emakume gazte migratzailearen kontakizunetan murgildu ahal izan ziren. Gero, taldeko hausnarketa eta elkarriketa egon zen.

2024an, 12 lantegi egin ziren, ikastetxe hauetako DBHko 3. mailako 12 lerroekin: Ekintza, San Ignacio de Loyola eta Zubiri Manteo.

<https://moviltik.org/es/loturak/zabaldu/>



2

Prestakuntza

2 Prestakuntza

Migrazioa eta kultur aniztasunaren kudeaketa maiatzaren 30 eta ekainaren 6a eta 13a

Kultura Aniztasunaren Atalak ikastaro hau antolatu zuen, Udaleko teknikarien artean kulturarteko ikuspegia txertatzeko.

Prestakuntzak, guztira, 12 irakastordu izan zituen, hiru saiotan banatuta. Saio horietan atzerriartasunari eta asiloari buruzko araudiaren ikuspegi orokorra ematen saiatu ginen, kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu desberdinak ezagutarazten eta kultura desberdinetako

pertsonekin proiektuak eta harremanak garatzeko beharrezkoak diren gaitasunen ezagutza errazten.

Udalataldesberdinetako 23 pertsona bertaratu ziren: Berdintasuna, Giza Eskubideak, Kultur Aniztasuna, Gizarte-Ekintza eta Lankidetzak.

Ikastaroa Maria Luisa Altzak, Jeanne-Rolande Dacougnak eta Lila Maya Amranek (Biltzen) eman zuten.

EHUko Udako Ikastaroa - Etorkizuna hemen dago: aniztasunean bizikidetzak dakartzan erronkak eta aukerak

Kultura Aniztasunaren Bulegoak UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioarekin lankidetzan antolatu zuen ikastaro hau, helburu hauekin: gure inguruko hirien askotariko errealitateaz jabetzen laguntzea; kulturarteko hiriaren erronka nagusiak identifikatzea eta jorratzea; jatorri desberdineko emakumeen eta gazteen errealitate espezifikoetan sakontzea, eta ikasleak konpetentzietan, narrazioetan eta ekintzetan gaitzea, kulturartekotasuna sustatzeko.

Hauek izan ziren hitzaldiak, lantegiak eta mahai-inguruak eman zituzten pertsonak: Xabier Aierdi Urraza, Eduardo Ruiz Vieytez, Gemma Pinyol-Jiménez, Daniel de Torres Barderi, Marta Popiolek, Hajar Samadi, Samira Goddi Mendizabal, Heldy Soraya Ronquillo Peña eta Jeanne-Rolande Dacouгна Minkette.

Miramar jauregian egin zen, irailaren 12an eta 13an, eta 50 pertsona baino gehiago bertaratu ziren, gehienak elkarteetatik eta erakundeetatik zetozen.

2 Prestakuntza


Prestakuntza ikastetxeetan

Migrazio-fluxuen ondorioz, euskal komunitatea gero eta askotarikoagoa eta plurala da. Etengabe aldatzen ari den gizarte kulturantzun horrek erronka berriak planteatzen dizkio hezkuntza-sistemari, gero eta anitzagoak eta konplexuagoak diren ikasleen beharrei erantzun behar baitie.

Hala, ezinbestekoa da eskola-komunitateari kulturarteko prestakuntza ematea, inplikaturako

eragileek sortzen diren egoera guztiak kudeatu ahal izan ditzaten eta ikasleen aniztasunak dakarren aberastasuna aprobetxatzen jakin dezaten.

Horregatik, 2024an, Kultura Aniztasuneko Negoziatuak, Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin lankidetzan, 11 saio antolatu zituen Catalina Erauso, San José, Herrera eta Presentación de María ikastetxeetako irakasle eta eskola-jantokiko langileentzat.



3

Argitalpenak



Barometroa

Kultura Aniztasunaren Bulegoak txosten bat egitea kontratatu zuen, donostiarrek atzerritar jatorriko biztanleei buruz dituzten pertzepzio eta jarrerak aztertzeko. Azterlan hori IKUSPEGIri (Immigrazioaren Euskal Behatokia) enkargatu zitzaion.

2023ko irailean, 400 inkesta egin ziren etxeetan. Inkesta horietan lortutako datuak prozesatu ondoren, Barometroa txostena egiteko lan egin zen 2024an. Txosten horren ondorioz, biztanleriaren datu soziodemografikoen analisi deskribatzailea egin zen, bai eta Donostiako atzerritar jatorriko pertsonetikiko tolerantzia-indizearen kalkulua ere.

4

**Bizikidetza
eta herritarren
parte-hartzea**

4 Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea

Ongi etorri eskolara: Eskola-komunitatean kultura arteko bizikidetza sustatzeko programa

Ongi Etorri Eskolara proiektua 2015-2016 ikasturtean sortu zen, eta gaur egun Donostiako zortzi ikastetxek parte hartzen dute: Aitor, Zuhazti, Maria Reina, Intxaurrondo Ikastola, Amara Berri (hiru ikastetxe), Jakintza, Orixe eta Arantzazuko Ama.


Proiektu honek tresnak ematen dizkie ikastetxeei kultur aniztasunari buruzko heziketa emateko.

Proiektu horretako “Familia Laguna” programa aipagarria da. Programa horretan, gure hirira iritsi berri den atzerriko familia bat bertako beste familia batekin harremanetan jartzen da; azken honek zubi-lana egiten du komunitate-eta eskola-eremuan gizarteratzeko prozesua errazteko. Aldi berean, bi familiek elkar ezagutzen dute, elkarri eragiten diote eta aberastu egiten

dira kulturarteko harreman batean. 2024an, 110 familiak parte hartu zuten programan, 55 bikote osatuz. Beste familia batzuei elkarrizketak egin zaizkie eta eskolaren funtzionamenduari eta auzoko baliabideei buruzko informazioa jaso dute.

Gainera, urte osoan zehar, programak zerbitzu eta jarduera asko gauzatu ziren, hala nola: irakasleentzako eta familientzako prestakuntza, ikasgeletan lan egiteko tresnak, Familia Laguna programarako baliabide-gidak, gurasoen elkarteekiko lankidetzak, prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak, kulturarteko talde motorrak bultzatzea, kulturarteko diagnostikoak eta ikerketak, eta abar.

<https://www.ongietorrieskolara.org/eu/>



4 Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea



Emakumeen Kulturarteko Gunea

Kultura Aniztasunaren Bulegoak bultzatutako ekimena da, Udaleko Berdintasun Atalaren lankidetzarekin batera aurrera eramaten duena. Emakume migratuak ahalduntzen laguntzea du helburu.

Esparruak erantzuna eman nahi die Donostian bizi diren hainbat jatorritako emakume migratzaileen premiei. Horretarako, taldea astero biltzen da Emakumeen Etxean. Esparru seguru horretan, errealitateak eta bizipenak partekatu eta konponbide kolektiboak bilatzen dituzte, zailtasun eta lorpen indibidual eta taldekoetatik ikasita.

Horrela, talde honek egiten dituen jarduera guztien helburua da parte-hartze soziala, ahalduntzea eta kontzientzia feminista sustatzea.

2024an, gutxi gorabehera, askotariko jatorrietako 49 emakumek parte hartu zuten. Migrazio-bizipenak, lan-eskubideak, hiriko baliabideak, autozainketak, diskriminazioa eta antzeko gaiaz lantzeaz gain, hainbat lantegi antolatu ziren: fototerapia Ohiana Marcorekin, osteopatia Ane Ormazabalekin, kirol saio eta ikastaroak Hegalak zentroan, zinema-saioak, eta abar.

<https://labur.eus/XrkSf>

4 Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea

Kultura Aniztasuneko Eragileen Sarea

Kultura Aniztasunaren Bulegoak eta udalerriko elkarte-mugimenduek elkarrekin hitz egiteko esparru bat da. Atzerriar jatorrikoak, errefuxiatuak eta kultura askotakoak diren biztanleak hartzeko eta integratzeko lan egiten dute mugimendu horiek. Era berean, donostiar guztien artean parte-hartzea eta sentsibilizazioa sustatzen saiatzen da.

2024an, 2 bilera egin ziren. Bilera horietan, atalaren jardueren jarraipena egin zen, maiatzaren 21aren inguruko koordinazioa

sustatu zen, udal dirulaguntzen berri eman zen, eta aurrerapausoak eman ziren Kultura Aniztasunerako Udal Kontseiluaren sorreran, besteak beste.

Honako erakunde hauek hartu zuten parte bileretan:

Asociación Artística-Sociocultural Mestiza; Agifugi Asociación Gitana por el Futuro de Gipuzkoa; Loiolaetxea Gizarteratzeko Elkartea; Decebal

Asociación de Solidaridad Rumania-Euskadi, Ondoan Topaguneagizarte eta hezkuntza elkartea. Bide, Elkarrekin Kooperatiba Elkartea Txikia, Emigrados Sin fronteras, Eskuak Zabaltzen, Esperanza latina gizarte-sustapenerako kulturarteko elkartea Ijitoen Idazkaritza Fundazioa, Haurralde, Jatorrin: Asociación para la integración del colectivo inmigrante magrebí, Kamelamos adiquerar, Kolore Guztiak, Sos Arrazakeria Gipuzkoa, Ukraina-Euskadi, Kultura Aniztasunaren Zinegotzigoa eta Kultura Aniztasunaren ataleko teknikariak.

4 Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea

Harrera integral komunitarioa Martutenen

Donostiako Udaleko Kultura Aniztasuneko eta Partaidetzako atalek, Elhuyar Fundazioarekin batera, Martutene auzora iritsi berri diren bizilagunei harrera integrala egiteko prozesu komunitario bat jarri zuten abian 2023an.

Prozesu hori auzoko gizarte-eragileekin, udal-ordezkaritekin eta auzokide iritsi berriekin lankidetzan gauzatu zen. Besteak beste, diagnostiko kuantitatiboa eta kualitatiboa egin zen, eta harrera komunitarioarako ibilbide-orri bat diseinatu zen.

2024an ekintza-plana jarri zen abian, iritsi berriak identifikatzeko, haiei laguntzeko, iritsi berriak eta komunitatea elkar ezagutzeko eta, zeharka, harrera-komunitatea ahalduntzeko.

Horrela, parte hartzeko proiektu horren bidez, Martutenen harrera- eta bizikidetza-dinamika aberasgarri bat sortu nahi da, ekintza zehatzetatik haratago doana eta denboran irauteko gaitasuna izango duena.



5

**Sareetan parte
hartzea**

5 Sareetan parte hartzea

Elkarbizi sarea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritzak kudeatzen du sare hori, eta zuzendaritza horrek berak eta kultura-aniztasuna lantzen duten Gipuzkoako hainbat udalek osatzen dute.

Urtean zehar hainbat bilera egiten ditu, hainbat jarduera elkarrekin antolatzen ditu eta herrietako lana

eta esperientziak partekatzen ditu. Kultura Aniztasuneko Departamentuko teknikariak sareak antolatutako prestakuntza batzuetara joan ziren.

2024an, 4 bilera eta baterako sentsibilizazio-jarduera bat egin ziren, Safia El Aaddam liburuaren aurkezpena hainbat herritan.


Immigrazioko teknikarien sarea

Eusko Jaurlaritzak euskal udalerri batzuetako immigrazio-teknikarien kontratazioa finantzatzen du, horien artean Donostiako Udaleko teknikari batena.

Gainera, urtean zehar hainbat informazio-saio eskaintzen ditu immigrazioaren kudeaketarekin eta kultura-aniztasunarekin lotutako funtsezko gaiei buruz.

Era berean, Ikuspegiren eta Biltzenen bitartez prestakuntza irekiak, aholkularitza eta arlo horretako beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu.

2024an Ikuspegiren XX. urteurrenean parte hartu da, Immigrazio Foroaren Asilo Batzordean eta hainbat prestakuntzatan ere.



5 Sareetan parte hartzea



**Zurrumurruen
Aurkako Sarea**

**Red Vasca
antirumores**

“ZAS” zurrumurruen aurkako sarea

Gizarte- eta erakunde-eragileen sare bat da, eta gizartea eraldatzeko estrategia bat gauzatzen du, giza eskubideen, interkulturalitatearen eta arrazakeriaren aurkako ikuspegietatik.

Gaur egun, idazkaritza tekniko batek, lan-batzordeek eta aldizkako osoko bilkurek osatzen dute Sareko kideen

bozketan oinarritutako erabaki-eremua.

Kultura Aniztasunaren Bulegoak ZAS sarea mantentzen laguntzen jarraitzen du.

<https://zas.eus/>

5 Sareetan parte hartzea



RECI Kultura arteko Hirien Espainiako Sarea

RECI (Kulturarteko Hirien Espainiako Sarea) Estatuko sare bat da, Europako Kontseiluaren Intercultural Cities programaren ekimenez sortua. Gaur egun, kultura arteko programak eta ekimenak dituzten 22 hirik osatzen dute. Kultura- eta jatorri-aniztasuna hiriaren garapenerako eta kohesiorako elementu positiboak direla kontuan hartuta, sare honek elkarrekin lan egiten du esperientziak partekatzeko eta koordinatzeko eta kultura-aniztasuna kudeatzeko modurik onenari buruz eztabaidatzeko.

2024an, Donostiak RECIren 25. topaketa antolatu zuen Aieteko

Jauregian. Bertan, hiru egunez, hainbat hiritako 35 ordezkari parte hartu zuten Kultura Aniztasunaren Bulegoak antolatutako tailer, hitzaldi eta bisitetan.

<https://reddeciudadesinteligentes.es/>

5 Sareetan parte hartzea

ICC. Europako Kontseiluaren Kulturarteko Hirien Programa

Donostia Europako Kontseiluaren Kulturarteko Hirien Sarearen Programako kide da 2011z geroztik. Gaur egun, Europako eta beste kontinente batzuetako 140 hirik baino gehiagok parte hartzen dute, eta hiriei aniztasuna kudeatzeko eta migratzaileak eta gutxiengoak integratzeko kulturarteko estrategiak garatzen laguntzea du helburu.

2024ko aurrez aurreko topaketa Bragan eta Vila Verden (Portugal) egin da, eta sareko hiriek egindako jardunbide egokiak partekatu dira bertan. Era berean, desinformazioari aurre

egiteko eta immigrazioaren inguruko narratiba positiboak eraikitzeko eta ijito-komunitatea gizarteratzeko saioak egin dira, eta kulturarteko hirietarako tresna erabilgarriak partekatu dira.

Bestalde, Advisory Group 2022-2026 programaren parte da Donostia, Reykjavik, Stavanger, Salisbury eta Neuchâtel hiriekin batera. Batzorde horren zeregina da ICCko idazkaritzari zuzenean aholku ematea hainbat gaitan.



5 Sareetan parte hartzea



NET Idea proiektua

Donostiako Kultura Aniztasuneko Atalak aktiboki parte hartu du Europako NET-IDEA programan. ICC programaren babespean, proiektuaren helburua da tokiko agintarien eginkizuna eta lankidetza indartzea aniztasunaren, kulturartekotasunaren, diskriminazioaren aurkako mugimenduen eta inklusioaren sustapenean. Horretarako, proiektu honen ardatza hirien kultura arteko gaitasunak indartzea izan da, kulturartekotasuna sustatzera bideratutako politika publikoak aplikatzeko orduan, hirien arteko lankidetzan, eremu horretan eta herritarrengan bertan, batez ere gazteen artean, jardunbide egokiak

partekatzeko, kulturarteko gizartearen eskubideetan duten partaidetza eta kontzientzia areagotzen saiatuz.

2024an, Donostiako ikastetxe batean kultura-aniztasunaren inguruan sentibilizatzeko 50 gazterekin egindako komiki-tailerraren emaitzak jaso dira, Lublingo gazteen zurrumurruen aurkako topaketan parte hartu duten Europako hirietako hogeitabat gaztek egindako Arrazakeriaren aurkako Adierazpena argitaratu da, eta adierazpen horren berri eman da topaketa batean, eta “Be everything, Belong” erakusketa egin da Botyrkan. Erakusketa horrek kulturarteko interakzioa

sustatzea eta gazteekin narratiba berriak sortzea izan du helburu, komunitate bateko kide izatearen sentimendu berri bat eraikitzeko.

Proiektu horretan parte hartu dute Kulturarteko Hirien Espainiako Sareko hiriek (Donostiak, Tenerifek, Castelló de la Planak, Bartzelonak eta Bilbok), Portugalgo, Suediako eta Italiako Hirien Kulturarteko Sareko zenbait hirik, eta Lublin (Polonia) eta Erlanguen (Alemania) hiriek.

Programa hori 2022ko uztailean hasi zen, hainbat urteko iraupena izan du, eta 2024ko ekainean amaitu da.

<https://labur.eus/gTouu>

6

**Elkarteentzako
dirulaguntzak**

6 Elkarteentzako dirulaguntzak

Dirulaguntza konkurrenteak

Diru-laguntzen helburua da hainbat jatorri eta kulturatako pertsonen artean elkar ezagutzeko eta aitortzeko lanean inplikaturako gizarte-eragileek zuzendutako ekimenak eta proiektuak babestea.

Kultura Aniztasunaren Bulegoak 54.150 euro banatu zituen, guztira, irabazi-asmorik gabeko hainbat erakunderen artean.

30 proiekturi eman zitzaien laguntza, “Harrera-, sentsibilizazio- eta partaidetza-proiektuak” dirulaguntza lerroaren bidez, eta proiektu bati “Ikerketa-proiektuak” lerroan.

Proiektu bakoitzean emandako dirulaguntzaren zenbatekoa lortutako puntuazioaren arabera ezarri zen.

<https://labur.eus/Q6b98>

Aparteko dirulaguntza

Se concedió a la asociación SOS Racismo Gipuzkoa una subvención para la realización de los proyectos:

- Revista de prensa diaria; consiste en la recogida y clasificación diaria en 23 periódicos de contenidos informativos relacionados con los fenómenos de inmigración, discriminación y racismo. En 2024 esta revista se envió a más de 1.500 suscriptores y asimismo crea al mismo tiempo una base de datos digital accesible para los diferentes agentes sociales y entidades (8.540€).

<https://sosracismogipuzkoa.org/observatorio-de-medios/>

SOS Arrazakeria

- Urretxindorra - Mentoretza nerabe gazteekin. Tresna sozial bat da, hain zuzen ere mentoretza jasoko duten ikasleen (zaurgarritasun-egoeran dauden 10-14 urteko haur etorkinak) eta banakako laguntza emateko mentore-ikasle boluntarioen (unibertsitateko edo goi-mailako ikasleak) arteko harremana sustatzen duena (5000 €).

2024an, SOS Arrazakeriak 50 bikote osatzea lortu zuen.

<https://sosracismogipuzkoa.org/urretxindorra/>

6 Elkarteentzako dirulaguntzak


Aparteko dirulaguntza

Ucrania Euskadi

Udalak hainbat neurri abiarazi zituen 2022an, Ukrainako gerraren ondorioz mugitu behar izan ziren pertsonen harrera antolatzeko. Ukrainarren komunitatearen integrazioa eta antolaketa errazteko asmoz, Udalak udal lokal bat laga zion Ukraina Euskadi elkarteari.

2024an, Kultura Aniztasunaren Bulegoak 2.500 euroko dirulaguntza eman zuen lokalaren funtzionamendu- eta mantentze-gastuak finantzatzeko.

<https://ucraniaeuskadi.com/>




6 Elkartentzako dirulaguntzak


Diru-laguntza izenduna

Camelamos Adiquerar

Camelamos Adiquerar elkarteak flamenkoa sustatzen du kultura transmititzeko tresna gisa. Elkarte horrek urtero antolatzen du Cante Flamenco Ciudad de San Sebastián lehiaketa, eta euskal kulturarekin batera ijito-herriaren nortasun propioa babestea du helburu.

2024an 20.000 euroko dirulaguntza eman zen Cante Flamenco lehiaketaren 23. edizioa egiteko.





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural

